

Foru Eraentzaren xedapen nabarmenenak:

1. artikulua

Nafarroa foru erkidego bat da, araubide, autonomia eta erakunde berekiak dituen, banaezina, Espainiako Nazioaren barnean sartua eta solidarioa haren herri guztiekin.

2. artikulua

1. Botere publikoek Nafarroako Foru Komunitatearen jatorrizko eskubide historikoak errespetatu eta babestuko dituzte, 1839ko urriaren 25eko Legeari, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduari eta bere xedapen osagarriei, lege organiko honi eta Konstituzioari jarraikiz, haren lehen xedapen gehigarriko lehenbiziko lerroaldean aurreikusitakoaren arabera.
2. Aitzineko idatz-zatian xedatutakoak ez ditu ukituko Estatuaren erakunde, ahalmen eta eskumenak, batasun konstituzionalari badatxezkie.

3. artikulua

Hobekuntzak helburu hauek ditu:

1. Batasun konstituzionalarekin bateragarriak diren ahalmen eta eskumen guztiak Nafarroako foru araubidearen barnean sartzea.
2. Nafarroako foru erakundeak demokratikoki antolatzea.
3. Nafarroako foru araubidearen ahalmen eta eskumen bereki guztiak bermatzea.

4. artikulua

Lege hau aldarrikatzen den unean Iruña, Lizarra, Tuter, Zangoza eta Erriberriko merindade historikoen barnean dauden udalerriek osatzen dute Nafarroako Foru Komunitateko lurraldea.

7. artikulua

1. Nafarroako armarría osaturik dago hondo gorriaren gainean paraturiko urrezko kateez, kate-mailazko zortzi besoen elkargunean esmeralda bat dutela, eta ooren gainean, berriz, errege koroa, antzinako Nafarroako Erresumaren sinbologia.
2. Nafarroako bandera gorria da, erdian armarría duela.

8. artikulua

Nafarroako hiriburua Iruñeko hiria da.

9. artikulua

1. Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala.
2. Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan.

10. artikulua

Nafarroako foru erakundeak hauek dira: Parlamentua edo Nafarroako Gorteak, Nafarroako Gobernua edo Foru Diputazioa, eta Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakaria.

11. artikulua

Parlamentuak Nafarroako herria ordezkatzeko du, legegintzarako ahalmena erabiltzeko, Nafarroako aurrekontuak eta kontuak onesten, Foru Diputazioaren jardura bultzatzen eta kontrolatzen, eta ordenamendu juridikoak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak betetzen.

23. artikulua

Nafarroako Gobernua kide anitzeko organo bat da, Lehendakariak eta kontseilariak osatua. Politika orokorra ezarri eta Foru Komunitateko Administrazioa zuzentzen du. Eginkizun exekutiboak dagokio.

45. artikulua

Bere foru araubidearen arabera, Nafarroako zerga eta finantza jardura hitzarmen ekonomikoaren tradiziozko sistemaren bidez arautzen da. Bere izaera itundua dela eta, behin Nazioko Gobernuak eta Diputazioak sinatu ondoan, Foru Parlamentuari eta Gorte Nagusiei igorriko zaizkie lege arruntaren bitartez onets ditzaten.

46. artikulua

Toki Administrazioaren arloan, Nafarroari dagozkio gaur egun dituen ahalmen eta eskumenak, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduan jatorri dutenak. Foru Diputazioak Nafarroako udal, kontzeju eta toki entitateen jarduketan legezketasunaren eta interes orokorraren kontrola eramaten du.

48. artikulua

1. Nafarroak eskumen osoa du foru zuzenbide zibilaren arloan.
2. Indarra duen Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazio edo Foru Berriaren zainketa, aldaketa eta garapena foru lege bidez egingen dira, behar izanez gero.